

## Herri edo eskualde mailako euskarazko hedabideen dirulaguntzak, 2022-2024 aldirako

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

---

### Helburua

1. Dirulaguntza hauen helburua da erakunde eskatzaileak egindako gastuak konpentsatzea, euskaraz argitaratzen diren herri edo eskualde mailako hedabideak landu, ekoitzi eta hedatzerakoan.
2. Laguntza hauen jasotzaile izan daitezke aipatutako esparruan herri edo eskualde mailako hedabideen ardura duten pertsona juridikoak, egoitza sozial eta fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokaturik baldin badute.
3. Laguntza hauen xedeetarako, herri edo eskualde mailako hedabidetzat jotzen dira helburu nagusia eguneroko informazioa ematea duten udalerrri, eskualde edo lurralde mailan zabaltzen diren euskara hutsezko egunkariak eta aldizkako argitalpenak, berdin soilik paperezkoak izan, edo edizio elektronikoko batekin batera.

### Nork tramitatzen du

- DIPUTATU NAGUSIA
- Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia
- Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzua

## HASIERA ETA ESKAERA

---

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta ereduetara sarrera](#)

### Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)